

Goierri


344. zenbakia
2008ko uztailak 4

Segura ERROETAN MURGILDUZ



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



reklone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria

7. zenbakia zure esku



Pilota astinduz

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Euskara txukuntzen: Denetik X.

5. Ingurugiro txokoa: EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (II).

6. Errezeta: Torradak natilla kremarekin.

Aholkua: Ultramore uhinen (UV) erradiazioa.

8. Erreportajea: Segura: "Gure erroetan murgilduz".

12. Elkarrizketa: Goierritarren eta atzerriarren arteko elkarbizitza helburu.

16. Elkarrizketa: Joxe Nazabal: "Tourrera bizikleta gosearekin joan behar da".

19. Gazte-leku: Anabel Toral lazkaotar saskibaloilaria.

22. Non zer.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Denetik (X)

Maizpide
euskaltegia

Bilatu eta aurkitu

Aurkitzea aurrez bilatu izanaren ondorioa izaten da. Kontua da askotan bi ekintza horiek adierazteko bilatu aditza erabiltzen dugula:

- ✗ Azkenenean bilatu dut joan den astean galdu nuen be-larritakoa (oker).
- ✓ Azkenean aurkitu dut joan den astean galdu nuen be-larritakoa (zuzen).

Bila ibili ez bagara... orduan topo egingo dugu!

- ✓ Kalean gindoazela, Ibarretxerekin egin genuen topo (zuzen).

Gaztelaniaren eraginez, egon ordezkatzeko erabiltzen dugu behar baino gehiagotan:

- ✗ 79 urteko emakumea aurkitzen da desagerturik joan den ostiraletik (oker).
- ✓ 79 urteko emakumea dago desagertuta joan den ostira-letik. (zuzen).
- ✗ Erramun gaizki aurkitzen da eta medikuarenera noa (oker).
- ✓ Erramun gaizki dago eta medikuarenera noa (zuzen).

“Baldintzitis”

Ez al dugu, aizue, maizegi erabiltzen “baldintza” hitza? Gehienetan ez ote da egokiagoa egoera erabiltzea?

- ✗ Baldintza onean dagoen autoa salgai! (oker).
- ✓ Egoera onean dagoen autoa salgai! (zuzen).
- ✓ Ondo dabilen autoa salgai! (zuzen).

Egoera onean
behar du etxeak,
erosiko badut!



On Sherlock akats bila, atsedan hartu gabe!

Burutu

Aditz hau ez dugu behar bezala erabiltzen askotan. Amaitu, bukatu esan nahi du (eta ez egin).

- ✗ Bi mabainguru burutuko ditugu datorren astean (oker).
- ✓ Bi mabainguru egingo (izango) ditugu datorren astean. (zuzen).
- ✓ Bere lana burutu zuenean etorri zen gugana, ez lebe-nago! (zuzen).

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Lan hori burutzeko zure laguntza beharko dut.
2. Beste asko ez bezala, Lazkaoko Pako baldintza one-an zegoen Quebrantahuesos-en aritu ondoren.
3. Koldorekin aurkitu nintzen Bilboko Guggenheim-en.
4. Bilatu dugu, ama, goizean galdutako puxtarria! Ohe azpian zegoen!
5. Vicente Beldaren semeak ondo aurkitzen zela esan zuen lasterketari ekin aurretik.
6. Andregai bila luzaroan ibili ondoren Urkiolako San Antoniorengana jotzea erabaki omen zuen Koxmek.

OHARRA: 1.an, lan hori egiteko behar du (zuzen egongo da amaitzeko esateko); 2.an, egoera onean edo ondo; 3.an, topatu nintzen edo egin nuen topo; 4.an, aurkitu dugu; 5.an, ondo edo sasoiko zegoela; 6.a, zuzena da.

Joan den aldizkarian “ere”ri buruzko ariketarik ez zen izan leku-faltagatik. Egiteko irrikan (kar-kar) egongo zinetenez, “to” beste sei esaldi:

1. Ezer galdetu behar al diozue Unaxi? Ez, ezer.
2. Zumalakarregiren museoan Iñaxi izan zen ere.
3. Eneko ere zetorren oso nekatuta.
4. Patxi ere zetorren.
5. Zegamako Antonio Bolasek ere gezur asko (eta handiak) esaten omen zituen.
6. Hau ikusita... “ere” erabiltzea zaila dela esatea ere!

OHARRA: 1.an, Ez, ezer ez (ezer ere ez, ezertxo ere ez) behar du; 2.an, Iñaxi ere izan zen; 3.an, Eneko ere oso nekatuta zetorren; 4.an, Patxi ere bazetorren; 5.a eta 6.a zuzenak dira.



kutxa

EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (II)



Baccharis-Bacaris

(*Baccharis balimifolia*)

Itxura: 3 metrora arteko zuhaizka diokoa da. Bere lore hori-zurixkak mordotan bartzin dira.

Jatorria: Ipar Amerikako Ekialdeko kostalde.

Historia eta hedapena: Landare hau orain dela denbora gutxi sartu zuten EAEn landare ornamental bezala, kosta inguruan hain zuzen ere, gazitasuna ongi jasaten duelako. Padura eta itsasotik hurbil dauden zona eraldatuetan aurkitzen da. Inbasio honen adibide garbi bi Urdaibai (Bizkaia) eta Txingudiko badia dira.

Ondorio negatiboak:

- Kolmatazio efektua areagotzen du, sustraiek sedimentuak geratzeko duten ahalmena dela eta.
- Polena alergenikoa da.
- Bere hosto eta loreek sustantzia kardio-aktiboak dituzte, eta hauek jateak, abereetan beherakoa, dardarak etab. ekar dezake.



Tximeleten zuhaizka

(*Buddleja davidii*)

Izen arrunta: Lila, tximeleten zuhaizka.

Itxura: 1-5 metrora arteko zuhaizka da, hosto erorkor edo erdi-erorkorrak dituena. Bere loreak, kolore lila eta usaintsuak dituzten infloreszentziak dira. Tximeleten zuhaizka izenez ere ezagutzen da, lorán dagoenean bertan ezartzen den tximeleta kopurua dela eta.

Jatorria: Txina.

Historia eta hedapena: Landare hau Europan lehen aldiz landare apaingarri bezala sartu zuten XIX. mendean. Basobide, ezpona eta areketatik joan da hedatzen. Gaur egun Urdaibai (Bizkaia) edo Txingudi (Gipuzkoa) bezalako tokietan ohikoa da hauek aurkitzea.

Ondorio negatiboak:


- Hazkuntza azkarra dauka, eta ebakitako adarrek berriz hazi, eta landare berri bat sortzeko gaitasuna daukate, bertako landareak desplazatuz.

JAKIN BEHARREKOAK

Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiak Gaztela eta Leongo Juntak eginiko arautegiaren aldaketak bertan behera utzi ditu. San Glorio eski-estazioa egiteko parke naturalaren barruan, Juntak arauak aldatu zituen. San Glorio babesteko plataformak eman zuen auzia Auzitegi Nagusira. "Fuentes Carrionas y Fuente Cobre-Montaña palentina" parke naturalean eta "Picos de Europa" eskualdeko parkean izango zuen eragina, basaoiloa eta hartzarentzako ezinbestekoak diren habitata suntsituz. Epaitegiaren aburuz eski-estazioa egiteko arau aldaketa hauek erabaki ilegala eta zuzengabekeria dira. Gainera ekonomikoki bidegarritasun urria duela dio. "La Marbella del Norte" goitizena jaso zuen espekulazio proiektuak. San Glorioko plataformak garapena eta natura babestea bateragarriak direla dio. Eskualdeko kultur eta natur balioak zainduz, turismo arduratsua bultzatuz eta abar. Adibide gisa, Liebanako garapen ereduak: jatorrizko izendapenak sortu, abeltzaintza, nekazaritza turismoa eta ingurugiroko kalitatearen irudia landu.

Kanariar irlak laborantzaren transgeniko gabeko eskualdea izendatu du gobernu autonomikoko kontseiluak. Ingurumen aldeko talde ezberdinen elkarlanak bultzaturik ekin-tzak beren helburua lortu dute.

Ibaialde monografikoak - Hezkuntza eta Ingurumen Sailak



Eneko Azurmendi
Lazkao Etxe jatetxea
Zaldibia

Osagaiak, 4 lagunentzat:

- 1/2 l. esne
- 1/2 esnegain likidoa
- 100 gr. azukre
- Kanela zotz bat
- 2 arrautza
- Ogi barra erdia

Natillentzat:

- Litro bat esne
- 5 arrautza gorringo
- 100 g. azukre
- Limoi azala.

Natillak egiteko krema ingeles leun bat egingo dugu, esnea irakin kanela, azukre eta limoi azalarekin. Jarraian arrautza gorringoak irabiatu eta irakindako esnari gehitu. Su bajutan nahasten jarraitu denbora apur batez irakin gabe.

Torradak egiteko, bezperako ogia xerratan (3

zm.lodi) ebaki eta azala kendu. Esnea, esnegaina, azukrea eta kanela irakin eta ogia bertan utziko dugu ordu erdi bat edo. Ondoren ogi hauek arrautzetan pasa eta zartaginean olio frijitu.

Aurkezteko, platera batean jarriko ditugu torradak natilla azpian dutela izozkiarekin.

Ultramore uhinen (UV) erradiazioa

AHOLKUA



Ultramore uhinen erradiazioak nahiz eta neurri juxtu osasunerako onak izan, dosi altuetan ez dira batere osasuntsuak. Gure begiek UV erradiazio konzentrazio altuen aurrean daudenean, prebentzio gisa, babes ona behar dute sor daitezkeen gaixotasunei aurre egiteko (konjuntibitis, keratitis, kataratak...).

Beraz esan daiteke UV erradiazio altuen esposaketa iraunkorrek gure begien aldaketak edo degenerazioak sor ditzakeela pix-

kanaka, nahiz eta gu ez konturatu. Oso garrantzitsua da beraz, bakoitzarentzat komenigarri diren eguzkitako betaurrekoak erabiltzea.

Mota eta kolore askotako kristalak daude, eta eman behar diegun erabileraren arabera, batzuk edo besteak erabiliko ditugu:

- **Gris koloreko kristalak:** koloreen perzepzio kromatikoa ez du aldatzen eta iluminazio irregularreko giroetan era-

biltzeko dira. Gidatzeko ere komenigarriak dira.

- **Marroi kolorekoak:** aire librean egiten diren kiroltarako aproposak dira, baita operatutako jendearentzat ere.
- **Berdeak:** Ur kirolak.
- **Horiak:** Arratsalde nahiz lainoarekin gidatzeko, eta mugimendu azkarreko kiroltarako. Tenisa adibidez.
- **Polarizatuak:** Tratamendu honek horizontalean iristen zaizkigun isladak kentzeko dira, beraz, bai itsasoan, bai gidatzeko oso aproposak dira, itsualdia saihesten dutelako.



Ainhoa Arce
Argi Optika
Beasain



izal

IMAZ eta CONTRERAS

Ondramuño baserria

IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Berrikuntzari bultzada berri bat,

orain bai.

Gure ideia guztiak abiarazi.
Ikerkuntza indartu. Bide berriak aurkitu.

Hori da efektogipuzkoa.

2007/2011 Kudeaketa Plana

efektogipuzkoa



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >



‘Gure erroetan murgilduz’

Uztailaren 12an eta 13an Erdi Arora itzuliko da

Mendeetan atzera egin ezazu Segurako atariak eskainiko dizuten eszenatoki paregabeaz baliatuz. Gonbidapen horixe egiten dute segurak, datorren astebururako, uztailaren

12 eta 13rako. Erdi Arora itzuliko da Segura eta garai hartako bizimoduan eta giroan barneratzeko aukera izango da. Hemendik aurrera, bi urtean behin egingo da Erdi Aroko festa.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.




IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702
Oriako pasealekua, 20
BEASAIN



Garia protagonista nagusienetarikoa delarik, uztailako bigarren asteburuan, uztailaren 12 arratsaldean eta igande goizean, Erdi Aroko festa egingo dute Seguran. Segurarrak, beraien erroetan murgilduko dira.

400 lagun baino gehiago, Erdi Aroko arropak jantzi, etxeetako balkoiak zutitalez apaindu eta bakoitzak bere zeregina izango du. Guzti horretarako, herriko 28 ataritan, lanbide ezberdinak ikusi eta ezagutzeko aukera izango da. Goiko koadroan duzue, atariz atari ikusteko aukera izango dena. Larunbat gauean, txalapartaren doinuak, afari garaia dela adieraziko du. Plazan, elkartuko dira segurarrak, sagardo kupela lagun, eta segurarrak zopa jaleak direnez, baratzuri zopa eta oilasko izterrek jateko.

Igande goizean ere izango da zer ikusia eta zertan lana eginga. Eguraldi ona egiteko errogabatibekin bukatuko dute festa.

Hori bai, arratsaldean, beste lan bat ere izango dute segurarek: herria garbitu eta txukun uztea.

Garia

Aurretik esan dugun bezala, garia izaten da protagonista nagusia. Festa ere horregatik izaten da uztailako bigarren asteburuan. Data egokia ote den galdetuta, honela erantzun du Berasategik: "Data hori izan beharrean dago. Garia uztailan ebakitzen da. Gustatuko litzaziguke irailean egitea baina garia uztailan ebakitzen eta jotzen da. Ez da jende asko etortzeko festa. Kanpoko jendez beteta egonez gero, desitxuratu egingo litzateke. Ez da festa masi-

boa. Batez ere herritarrei begira antolatutako festa da".

Ia urte guztiko lana da gainera gariarena. "Garia irailean eginda daukagu eta garia mozteko garaia uztaila denez, uztailan izaten da festa. Festa baino astebete lehenago ebakitzen dugu garia, sortak egin, lotu... aurtan atzera samar dator baino", argitu du Rafael Barasategi Plaza Zaharreko lagunetarik batek. Gari jotzeak izugarritzko arreta sortarazten duela esan du Berasategik. Plaza Zaharrean izate da gari jotzea.

Herriko kaleetan ere, lastoa botatzen dute eta usain eta bake giro berezia sortzen omen da.

Altxorra ezagutu eta erakutsi

Inguruko hainbat herritan Erdi Aroko azokak egiten dira baina Segurakoak ez dauka horrelako azokekin inolako zerikusirik. "Hemen ez da ezer saltzen. Gazta, pastak, eztia eta oinetakoak bakarrik saltzen dira", dio Berasategik.

Seguran, daukaten altxorra erakutsi nahi du. "Seguran zer daukagun jendea iri erakustea da helburua. Jai honetatik aparte, guk egin nahi dugun lana, bilketa lana egitea da. Erdi Aroan Segurak zuen altxorra kanpora ateratzea da helburua", zehaztu du segurarrak.

Eszenatoki aparta daukate horretarako. Baina ez hori bakarrik. "Etxeetako atariekin guk eszenatokia muntatuta daukagu. Baina nahiz eta pentsatu Erdi Aroko zerbait egitea, lanbide ezberdinetako tresneriarik ez badaukazu, ezinezkoa da egitea. Zorionez, urte askotan aritu naiz gauzak bil-

Segurak duen altxorra kanpora ateratzea da ikuskizunaren helburua.

Egitaraua

Uztailak 12, larunbata:

16:00etan: Atari irekiera, Udaletxean noblezi eta dultzaineroen kalejirarekin.

17:30ean: Arkulariak pilotaleku zaharrean.

18:30ean: Ehiza-hegaztien erakusketa pilotaleku zaharrean.

Kale animazioa: Bandoa, sorginak gurdian, zaldunak, istorio kontalariak, larraina plazan, eskuz gari jotzea plaza zaharrean, herriko txistulariak.

22:00etan: Erdi Aroko afaria. Txalaparta kontzertuarekin hasiera emango zaio.

Uztailak 13, igandea:

10:30ean: Atari irekiera, Udaletxean noblezi eta txistularien kalejirarekin.

Kale animazioak: Bandoa, sorginak gurdian, zaldunak, istorio kontalariak, larraina plazan, eskuz gari jotzea plaza zaharrean, herriko txistulariak.

12:00etan: Herritarren errogatibak, Segurako Koruaren laguntzarekin.

15:00etan: Atarien itxiera eta kale garbiketa.



tzen, eta lanbide ezberdineko tresna dauzkat. Eszenatokia hor dago, eta garai hartan zein lanbide ziren erakustea nahi dugu”, azpimarratu du Rafael Berasategik.

Gero eta gehiagora joan dira. “Zeinek pentsatu lihoarena; gariarena ere ez hasieran. Lihoa martxan jartzea pentsatu ere ez genuen egiten. Festa honetan zentroa, gari jotzea da”, gaineratu du.

Atariak

Atariak dira Erdi Aroko festaren eszenatoki nagusiak. Seguran, atariak handiak dira, bereziak. Rafael Berasategik, atarien historia eta garrantzia kontatu digu. “Historikoki, Segurako atariak ez daukate inolako zerikusirik ofizioekin. Seguran halako atari handiak zergatik? Zenbait pribilegio zeuzkan herri bat izanik, eta Arabatik eta Nafarroatik muga oso gertu egonik, jendeak zaldiak, kontrabandoa egiteko zeuzkan. Zaldiak, atarietan gordetzen zituzten eta horregatik hain atari handiak”, azaldu du.

Berrikuntzak

Urtero saiatzen dira ‘Segura: gure erroetan murgilduz’ ikuskizunean berrikuntza bat sartzen. Aurtan hiru izango dira.

Batetik zutoihalak. “Balkoi bakoitzean bere abizenekin jartzea zutoihalak. 30 bat aurreikusten genituen eta 68 lagunek eskatu dizkigute”.

Eguzki erlojua da bigarren berrikuntza. Herrian gehiago egon badaude ere, eguzki erlojua jarriko dute herriko plazan. “2 metro kuadroko egurrezko erlojua jarriko dute, umeek-eta ikusteko nola funtzionatzen zuen”, zehaztu du Berasategik.

Eta aurtan, eguzkia garesti samar dagoela eta, eguraldi ona egiteko errogatibak egingo dituzte.

Aurrera begira, beste egitasmo bat ere badute segurarrek, horretarako diru asko behar baldin bada ere: “denborarekin, bi sarrera egin nahi ditugu, Ordizian egiten duten bezala. Dokumentuak baditugu, nolakoak ziren azaltzen direnak. Uda guztian edukiko genituzke jarrita, Segurara dato-



rrren jendeak ikus dezan Segura nolakoa zen”.

Bi urtean behin

Segurarren artean arrakasta handia duen jaia da Erdi Arokoa. “Jendeak horrelako zerbaiten beharra ikusten zuen eta bereganatu egin du festa. Hainbeste lagun bere arropa eginda, kalera ateratzea... Herriak berea egin du festa. Aurten ere, 20 jantzi gehiago egin ditugu”, zehaztu du segurarrak.

Arrakasta bai, baina lana ere bai. Hori dela eta, jendea nekatu eta aspertu ez dadin, Erdi Aroko festa, bi urtean behin egitea erabaki


dute Plaza Zaharreko Lagunak elkartekoek. “Lan asko dauka jai honek eta ez ditugu herritarrek aspertu nahi. Beraz, pentsatu dugu, jaia, bi urtean behin egitea. Hori bai, etenik ez da egongo. Hurrengo urtean adibidez, hitzaldiak antolatuko ditugu. Herrian zer daukagun, nolako herria daukagun, nolako herria nahi dugun, herri honekin zer egin behar den... herritarren artean kezka sortu nahi dugu. Uztaila, Erdi Aroko hil bezala hartu nahi dugu. Hitzaldi pedagogikoak egin nahi ditugu”, aurreratu du Berasategik.



Plaza Zaharreko lagunak

2004. urteko maiatzaren 3an dugu ‘Segura bere erroretara murgilduz’ ikuskizunaren hasiera. “Seguran zer geneukan ikusita, Plaza Zaharreko Lagunak taldeak jai bat antolatu nahi genuen. Sentsibiltate politiko ezberdineko 12 lagun elkartu ginen. Beheko barriokoek, Santakutz egunean festa egiten dugu eta bertan hasi ginen zerbeit egin behar genuela esanez. 12 lagun elkartu ginen eta duela bost urte 12 lagun jantzi ginen Santakutz eguneko afarian. Hurrengo urtean, dei zabalagoa egin genuen eta 90 lagun inguratu ziren. 20-30 lagun espero genituen eta 90 azaldu ziren. Herri osora zabaldu genuen. Gariarena egin nahi genuen eta hura ez zegoen maiatzean egiterik eta uztailean atzeratu genuen. 750. urteurrena zela eta uztailean egin genuen eta gure ezusterako, herriko 400 lagunek baiezkua eman zuela”, dio Berasategik.

Plaza Zaharrak zer esan nahi galdetu diogu: “1600-1700. urtera arte, Segurako plaza bakarra, Plaza Zaharra zen. Erdi Aroan, jauntxoan etxeen inguruan egiten zituzten etxeak eta arma plaza ere bai. Harresian sartu eta lehenengo zegoen kalea izaten zen”, zehaztu du.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



xetai

nafarroa etorbidea 1
20200 beasain gipuzkoa
www.xetai.net

*Goierriko Lehen
Elkarbizitza Plana:*

Goierritarren eta atzeritarren arteko elkarbizitza helburu



Agenda 21aren barruan, gizarte arloan, immigrazio gaia lantzen ari dira Goiekin, gero eta goierritar berri gehiago ditugulako Goierriin. Immigrazioaren diagnostika eta 'Goierri zure eskura!' baliabide gida egin zituzten joan zen urtean eta orain, datozen urteetan aurrera eramane beharreko ekintza planak zehaz-

tuko dituen Elkarbizitza plana egiten ari dira, Goierriko eragile ezberdinekin batera. Aniztasunean oinarrituz, elkarbizitza eroso sortzea da helburu nagusia. Ainara Ormaetxea Goiekiko Immigrazio Teknikariak, goierritarrei Plan honi ekarpenak eginez parte hartzeko deia egin die, plana, guztiona eta guztiontzat izan dadin.

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

Kol. zkia.: 764

Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Zeintzuk izango dira Elkarbizitza Planaren ildo nagusiak?

Hiru dira Elkarbizitza Planak dituen ildo nagusiak. Alde batetik, iritsi berrientzat, atzerritarrentzat, harre-ra egiteko baliabideak sortzea. Harrera sare hori, gizarte sare bat bihur daiteke beharbada, alor asko ukitzen baitira.

Bestetik, hainbeste lurralde ezberdinetako hainbeste atzerritarrek, beste ezaugarri batzuk izaten dituzte. Adibidez, administrazio mailako harremanetan, enpleguan... Bigarren ildo da, bertako erakundeak harre-ra horretarako prestatzea. Atzerritarren lehentasunetarikoa bat "paperak" izaten dira eta Gizarte Laguntzaileei edo INEMekoei adibidez, inork ez diete esplikatzeko nola doan legea. Beraz, zailtasun horrekin aurkitzen dira eta bertako erakundeak ere prestatu egin behar dira. Aisi edo kultur taldeei, txipa aldatzea, ireki eta etorkinak ere kontutan har ditzatela kultur ekintzetan.

Eta azkeneko ildo da, sentsibilizazioa lantzea, bertakoei eta atzerritarrei begira. Guretzako beraiek ezberdinak dira eta beraiekiko hesi bat daukagun bezala, beraiek gurekiko ere bai. Perspektiba hori ahaztu egiten zaigu, beraiek gu nola ikusten gaituzten. Guretzat, gu eta atzerritarrek gara, baina atzerritarren artean, ez da berdina senegaldarra izan edo errumaniarra izan edo kolonbiarra izan... ezin dira zaku berdinean sartu.

Etorkinak ere parte hartzen ari dira plan hone-tan. Zein lan ildo ari zarete aurrera eramaten?

Goierriko Elkarbizitza planak, azken batean, goierri-tar guztiak inplikatzeko ditu. Beste leku batzuetan Immigrazio plana deitzen diote baina horrek ematen du im-migranteentzako zerbait ba-karrik dela eta ahaztu egi-



Pakistandar eta legorretarrek jokaturako kriket partidua.

Immigrazioa, lehentasunezko gaia

Etorkinen gaia lantzen ari zarete Goiekin. Noiztik eta nolatan?

Agenda 21ean hiru arlo daude: arlo ekonomikoa, ingurumen arloa eta gizarte arloa. Bakoitzean kontseilu bat dago eta arlo ezberdinetako eragileak elkartzen dira bertan. Goierri mailan, arlo sozialean zein behar dauden aztertu eta diagnostiko txiki bat egin zen. Goierri gero eta immigrazio gehiago zegoela eta, immigrazioaren gaiari lehentasuna ematea erabaki zen 2005-2006an, Kontseilu sozialean. Eusko Jaurlaritzara joan ziren zein aukera zeuden ikusteko eta Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen zituen Immigrazio Teknikari bat kontratatzeko. Orduan, 2007an, ni hasi nintzen, eta ordurako diagnostikoa egiten hasia zegoen Euskal Herriko Soziologiako departamenduarekin. Diagnostikoa iaz bukatu zen. Eta orain, behin diagnostikoa eginda, elkarbizitza plana egiten ari gara. Plana egiten laguntzen Farapi S.L. aholkularia ari zaigu. Hauek, Antropologia aplikatuaren aholkulariak dira. EHUko unibertsitatearekin daukate harremana ere. Planaren estrategian, metodologian, erredakzioan zein ideietan laguntzen dute.

ten zaigu gu ere parte aktiboa garela. Elkarbizitzaren planaren filosofia hori da, aniztasuna kontuan edukitzea. Horregatik, ezinbestekoa ikusten dugu etorkinen parte hartzea.

Immigrazio arloak arlo guztiak ikutzen ditu. Hori dela eta, arlo ezberdinetako eragileekin sortutako lan taldeak egin ditugu. Enpleguak, aisialdikoak, gizar-

te zerbitzuetakoak, udale-txeetako zinegotziak eta teknikariak, euskara mundukoak, komunikabideak, etorkinak eta abar.

Eta bestetik, guneka ere bai. Goierriko errealitatea jasotzeko ez da berdina Beasain edo Gabiria edo Segura...

Beste aldetik, herritarrek ere parte hartzea nahi dugu. Eredu bat egin dugu, ekar-

pen fitxa bat. Guk landu nahi ditugun arlo guztiak hartzen ditu. Bakoitzak nahi duen arloan, bere proposamena egin dezake. Ekarpen fitxa hau Elkarbizitza plana egiteko da eta Elkarbizitza planean azken batean, datozen urteetan martxan jartzeko ekintza plana egingo da. Ekarpen asko egon litezke baina gero lehentasunak zehaztu beharko dira.

Goierritarrek eta goierri-tar berrie-kin harreman zuzena duzu. Herri-tarrek zein jarrera daukate gai honen inguruan?

Denetatik dago nire ustez. Niri gehienbat, jarrera positiboa daukatenak iristen zaizkit. Baina ikusten dut

Elkarbizitza planaren filosofia,
Goierriren
aniztasuna kontuan edukitzea da.

baita ere, beste jarrera batzuk ere badaudela, guztiz kontrakoak. Zergatik dau den hemen... galdetzen dute. Baina nik uste dut askotan, beldurra diela. Hasiera batean, hori da astakeria esaten ari dena pentsatu dezaket, baina nik bestalde, ulertzen dut. Azken batean, fase bat da. Inoiz ez baduzu harremanik eduki edo emigrazio fenomeno nola interpretatzen duzun arabera, hasiera batean halako beldurrak edo erreakzioak edukitzea normala iruditzen zait. Horrek ez du esan nahi ados nagoenik. Hor ikusten dut, gure lana, mito horiek desmitifikatzea ere badela, gerturapen bat egitea. Egiteko lan asko dagoela ikusten da. Horretarako, gertutasuna, ezagutzea, komunikazioa beharrezkoak dira. Goierri Kolorerekin ere hori nahi genuen: elkar komunikatzeko, hitz egiteko, espazioak sortzea, eta gertutasun horrek besteen errealtatea hobeto ulertzen laguntzen du. Pertsona bezala ikusten duzu.

Atzerritarrekiko
mitoak puskatzea
da lehenengo
fasea. Behin
mitoak
puskatutakoan,
gerturapena egiten
ausartzea. Gure
lana, zirikatzea da,
harreman
horietarako
espazioak sortzea.

Ekarpen Fitxa

Goierriko Lehen Elkarbizitza Plan honen aurretik, Goiekik, Goierriko Egoera Immigratorioaren Diagnostikoa (2007) eta Goierriko Baliabideen Gida egin ditu, azken hau Gueske elkartearekin, Esperientzia Eskolako ikasle ohiekin, elkarlanean. Plan honen diseinua beste pausobat da Goierri bizi garen herritarren arteko elkarbizitzaren oinarriak sendotzeko. "Elkarbizitza bultzatu nahi duen plana goierritar guztioi eragiten digun eta interesatzen zaigun proiektua da. Goierriko emakume eta gizonak gara elkarbizitza hau posible egin behar dugunak eta beraz guztioi dagokigu bertan parte hartzea. Helburua aniztasuna errespetatzen eta barneratzen duen bailara bat izatea, bizitzeko eta elkarbizitzarako egokia dena. Beraz, Elkarbizitza planaren helburuak eta jasoko dituen ekintzak zehaztu eta adosteko ezinbestekoa da goierritar guztion partehartzea.", dio Ainara Ormaetxeak.



Hainbat galdera eta eskema bat proposatu ditu Immigrazio Arloak. "Eredu bat besterik ez da. Fitxa hauetan hezkuntza, enplegua, euskara eta kultura, kooperazioa eta beste alor ezberdinak proposamenak jasoko dira. Fitxak, udaletxeetan, Gurutze Gorrian, Caritasen, lokutorioetan, eta abar ere aurki daitezke. Partehartze honi esker, goierritar guztion mesederako, denon artean adostutako plan bat egin nahi dugu, finkatutako helburuak lortzeko programatutako ekintzak burutzeko bideak finkatuz eta konpromisoak hartuz", gaineratu du Immigrazio Teknikariak. Informazio gehiago nahi duenak bertan aurkituko du: www.goierri.org

Haurren bidez gertutasun hori errazagoa da. Parkean, eskolako irteeran... espazioa konpartitzen duzu. Pertsona bakoitzak bere kontestua du, beste historia bat, beste filosofia bat, beste helburu batzuk, bizitza interpretatzeko beste era bat... Oso momentu eta espazio txikian, bi mundu oso ezberdin konpartitzen dira. Askotan zaila izaten da ulertzen. Baina bakoitzak bere kontestua dugu.

Oporretan kanpora joaten garenean, beste mundu posible batzuk badaudela ikusten duzu. Ba pentsa, horko pertsona hori, hemen dagoela bat-batean. Familia ulertzeko era, lana ulertzeko era, emakume izateko era, gizona izateko era... dena aldatzen da. Gerturatze hori ematen denean eta

hortaz konturatzen garenean, oso momentu polita izaten da. Ikasteko zenbat daukadan konturatzen zara. Ezustekoa izaten da. Momentu hori oso aberatsa izaten da. Bideak jarri beharra dauzkagu beldur edo lotsa horiek galtzeko. Gure helburua da, etorkizunean, planik behar ez izatea, naturalki egitea dena.

Eta hori noiz eta nola lor daiteke?

Fase ezberdinak daude eta lehenengo fase horretan gaude eta gauzak pixkanaka-pixkanaka egin behar dira. Nik beti esaten dut, atzerritarrek fase batzuk dituztela hemen eta guk beste batzuk.

Atzerritarrak, iritsi berriak direnak, etxebizitza, paperak, lana... izaten dituzte helburu. Behin hori

lortu dutenean, bigarren fasean, hori hobetzea izaten dute helburu, familia elkarztearekin batera. Hurrengo fasea litzateke, hemen lasai egotea eta era natural batean denak elkartzea.

Guk beste fase batzuk dauzkagu: lehenengo fasea da mitoak puskatzea edo beldurrak kentzea. Hori bizi dutenei, erantzuna eman behar zaie, mitoak puskatzen lagundu behar zaie. Beste fase bat da, behin mitoak puskatutakoan, gerturapena egiten ausartzea, lotsa hori kentzen. Eta azkenik, era naturalean bizitza ematea.

Gure lana da, zirikatzea, harreman horiek sortzeko espazioak sortzea. Baina erlazioak era naturalean egin behar dira, artifizial ere bihurtu baitaiteke bestela.



Joxe Nazabal: “Tourrera bizikleta gosearekin joan behar da”

Orain dela 31 urte Tourreko etapa irabazi zuen Euskaltel-Euskadi taldeko mekanikari zaldibitarrak

San Joan egunez dugu hitzordua Joxe Nazabalekin, uztailaren 5ean hasiko den Tourrerako, Euskaltel-Euskadi taldearen txirrinduarik prestatzera Deriora joan bezperan. Gaur egun mekanikari lane-

tan ari den 58 urteko zaldibitarrak badaki zer den Tourrean garaipena lortzea, duela 31 urte Gasteizen bukatu zen etapa irabazi baitzuen. Kas taldeko mailotarekin 1976tik 78rakoak izan zituen kirol urterik onenak.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Txirrindularientzako lasterketarik bereziena Tourra dela esaten da. Mekanikoentzat ere bai?

Bai guretzako, barruan gabiltzanontzako eta begira dagoenarentzako ere bai. Lasterketa guztietatik berezientxoena Tourra da. Eta jende gehienak segitzen duena ere bai.

Txirrinduak hemendik prestatuta eramaten dituzue?

Bai orain joango gara Deriora prestatzera. Txirrinduak estrenatu egiten dituzte Tourrean. Normalean, lasterketa hasi baino lehenago izaten dituzten hiru-lau egunetan probatzen dituzte. Baina gaur egunean ez dago diferentziarik: koadro berdina, material berdina, neurri berdina...

Txirrindulariak maniatiakoak izaten al dira?

Denetik, baina ondo ari zara. Denok ez gara berdinak eta bakoitzak izaten ditu bere gustuak. Nahiz eta txirrindua lehengo neurrian jarri, beti bere metroa hartu eta neurtzen ibiltzen dira. Berri-berritan agian nabaritutako da, besterekin ohituta daudenez. Gure garaian ez zen horrelako konturik izaten. Orduan txirrindu bat ematen ziguten entrenatzeko, korritzeko eta denerako. Hautsi arte segi. Orain, Espainiako itzulira joaten direnek ere berria estrenatzen dute. Tourra korritu eta Vueltara doanak ez, baina besteek bai. Denboraldi hasierarako, lau edo bost bizikleta izaten dituzte: bat



Euskalteko txirrindulariekin ateratako majina bat argazki ditu Nazabalek bere garajeko ormetan erantsita. Goiko argazkian Euskaltelen egon zen mekanikari bizkaitar bat, Iban Maio, Joseba Albizu eta Nazabal bera ageri dira.

etxean entrenatzeko, bestea lasterketetarako, beste bat erlojuz kontrakorako, laugarrena errepuestokoa eta zenbaitek txirrindu arina.

Mekanikoentzako lan faltarik ez da orduan.

Lana iristen da bai. Garbitu, errebisatu... Gainera, etapa arratsalde erditik aurrera bukatzen da, hotelera lekualdatzea dela, askotan berandu ailegatzen gara eta orduan hasi behar da lanean eta berandutu egiten da. Itzuli handietara hiru mekaniko joaten gara. Egunko eta bost egunetako probatan bi ibiltzen gara.

Euskaltelen zenbat denbora daramazu?

Taldeak baino urte bat gutxiago, 14 izango dira. Txirrindua utzitakoan taberna jarri genuen, erretegi bat. 12 urte hor egin genituen. Baina ni bizi guztia kanpoan ibili izan nintzen eta gogorra egiten zen. Perurena eta Miguel Madariaga ezagunak dira eta aukera izan nuen Euskaltelen sartzeko. Eta hementxe gustura nago, beti egin dugun zerbaitean.

Negu partean lanik izaten al duzue?

Bai, bai, beti izaten da lana. Hurrengo urterako ez da bizikletarik gelditzen, 'kabrak' bakarrik. Beste dena saldu egiten da. Urtetik urtera dena berria muntatzen da. Errebisatu, saltzeko ondo jarri... ez denboraldian adina baina lana izaten da bai. Derion daukagu horretarako tailerra.

Lasterketa guztietan ibiltzen al zarete?

Ez, guri ere denboraldi hasieran, egutegia ematen digute eta banatu egiten gara.

Garai bateko kontuak Aurreneko txirrinduak gogoratzen al zara?

Arrebari dirua kendu eta ahal zen bezala erosi nuen. Nik afizioa nuen eta orduan dirua neurrian. Ahal zen bezala hasitakoa, poliki-poliki. Aita zenak korritzen utzi nahi ez eta iturgin lana bilatu nuen Beasainen, bukatutakoan bizikletan entrentzeagatik. Urtebete lanean egin eta karrera bat irabazi nuen. 19 urte nituen eta au-

rrera edo atzera probatzeko lana utzi nuen. Fagorrekin, hasi eta segituan irabazi nuen lasterketa bat. Eta bigarren urtean, afizionatuetan, lau karrera irabazi nituen. Etxean ere gauzak pixka bat aldatu ziren, anaiak ere babesten ninduen eta hurrengo urtean, zazpi, hurrenagokoan 14... 1975ean profesionaletara igo nintzen, Kasekin. Estatu mailan, Kas zen talderik indartsuena, diferentziarekin gainera.

Bost urte Kasen egin nituen, urtebete Tekan, Colchon CRn eta Hueson. Zortzi urte egin nituen profesionaletan. Denbora motza. **Motza baino emankorra.** Ahal zena egin zen eta ez dago gehiago eskatzerik. Karrera batzuk irabaztea lortu genuen eta ondo. Irabaztea zaila da beti, eh? Garai guztietan, oso zaila da.

Txirrindua lehen aipatu duzun bezala, bakarra.

Hori profesionaletan ematen ziguten. Ona, hori bai. Kas-en Conlago markakoa zen. Orain ere oso marka

Txirrindulari
bakoitzari 4 edo 5
txirrindu ematen
zaizkio denboraldi
hasieran.

1977an Gasteizen, Tourreko etapa irabazi zuen

Zer dauka Tourrak beste lasterketek ez daukatenik?

Betikoa. Nik ez dakit ba. Jende askok jarraitzen duela, eta nik ez dakit zergatik. Den datetan delako, oporretan edo opor mugan... Ikusi egin behar da hura! Zenbat jende segitzen duen! Zenbat kilometro eta ibilbide guztian jendea, pasabidea eginda. Izugarria da. Zerbait badauka. Eta Frantzian beste karrarak ez dira horrela eh! Jendearen aldetik laurdena ere ez dira izaten. Baina Tourrak zerbait badauka.

Eta txirrindularientzako ere bai. Tourra izaten dute helburu nagusia.

Dudarik ez egin. Gaurko egunean garai batean baino askoz ere hobeto prestatzen da Tourra. Hobeto banatzen dute denboraldia, ahal baldin bada zerbait egiteko. Gure garaian askoz ere okerrago joaten zen. Karrera guztiak korritu behar izaten ziren orduan eta ondo bazenbiltzan orduan eramaten zintuzten. Orduan ez zen gaur bezalakorik, mediku aldetik-eta. Lasterketek saturatuta jartzen zinen. Ibili egingo zinen, baina Tourrera bizikleta gosearekin joan behar da. Eta gu saturatuta joaten ginen, erabat alderantziz.


1977an Gasteizen bukatzen zen etapa irabazi zenuen.

Bai, dena etxean, KASen nenbilen eta dena etxekoa. Bakarren batek esan zuen, denak erosita zeudela. Talde guztiak erosita omen zeuden etxeko batek irabazteagatik. Betiko kontuak.

Olorondik Gasteiza bitarteko etapa izan zen hura. Kilometro asko izango ziren.

200 bat izango ziren. Bonbaren bat ere jarri zuten Izpegin. Gu ez ginen konturatu, pasatu aurretik jarri omen zuten eta. Doneztebetik Ezkurra igo genuen, Leitza, Huizi, Lekunberri, Irurtzun eta Gasteiz. Akordatzen naiz bai. Guk ordena genuen, saiatu beharra zegoela irabazten. Doneztebetik Ezkurra bidean alde egin genuen belgiar batek, italiar batek eta hiruok. Haiek gelditu egin ziren. Haizea zebilela eta ez ginela ailegatuko eta azkenean hiru bat minuturekin ailegatzea lortu nuen. Eta gustura denok.

Zer sentitzen duzu garu egun Tourreko Pirinioetako etapetan, naranja kolorea eta ikurriñak alde guztietan ikusita?



Poza, galanta! Ez da giro izaten. Txirrindulariei ere pentsatzen dut berdin gertatuko zaiela. Gure garaian ere hala izaten zen Tourreko etapak hona etortzen zirenean. Jende asko joaten zen. Lehen Etorkizuneko Tourra lasterketa handiaren aurretik pasatzen zen eta jende asko egoten zen. Gainera ondo ibiltzen ginen, afizionatueta, bi urtetan, etapa bana irabazi nituen, leku berean gainea, Tourmaletoko etapa. Dena hemengo jendea zegoen. Oroitzapenean gelditzen dira gauza horiek. Eta orain gehiago joaten da bertako jendea. Ikaragarri. Iaz, Isabatik pasatu zenean, Belagua aldean ikusi egin behar zen!

- ✗ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✗ Komunitateen kontabilitatea
- ✗ Akten idazketa
- ✗ Aurrekontuen eskaera
- ✗ Aholkularitza legala
- ✗ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

LEIAR



LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

biok

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa

fiskala
kontablea
merkatala
laborala

ona da. Denboraldi hasieran txirrindu bat ematen zizuten, entrenatzeko eta korritzeko. Puskatu ezean, berarekin urte guztia.

Zaila izan al zen hasiera?

Ondo ibiltzen ginen baina mentalitatea ezberdina zen. Gu afizionatuetatik sano pasatu ginen, ibili ondo egiten ginen. Baina lana egin behar zen. Talde ona zen eta orduan ez zen gaur eguneko konturik. Irabazteko edo lanerako balioa izan behar zen bestela hurrengo urtean kanpoan zeunden. Ibili ondo egiten ginen, postuak egin bai, baina irabazi ez.

Lana egitea gehiago egokitu zitzaizun orduan.

Dudarik ez ezazula egin. Profesionalerara pasatu eta lehenengo urteetan, behar-beharrezkoa zen.

Prestakuntza aldetik ere ez zen oraingo konturik izango.


Zeure erara dena. Gaur egun ez dago sinisterrik nola eramaten dituzten prestakuntzak. Gure taldean hiru mediku daude. Lehenago, dena zeure erara zen. Bati entzuten bazenien "hau ona dek, halako bitamina, beste..." dena tipo horretara. Eta entrenamenduak ere berdin. Gaurko egunean entrenamenduak jarri egiten dira. Orduan asko ibili beharra omen zen. Goizean entrenatzera joan, kilometro mordo bat egin eta etxera ailegatu ezinik, leher egin da. Gaur egun beste era batera egiten da eta nik uste oraingoa hobea dela.

Non entrenatzen zenuen?

Nafarroa aldera joaten nintzen gehiena. Ataundik gora, Irurtzun aldera edo Tolosa aldetik, Azpirozetik, edo alderantziz. Gehiago egin behar bazen, Irurtzunen Ultzama aldera hartzen nuen. Entrenatzeko leku onak daude. Hemen denetik daukagu, mendia, zelaia...

Non moldatzen zinen hobeto?

Ondo zeunden garaian, de-



*Afizionatueta
Xey taldean*

Palmaresa

Joxe Nazabal Mimendia Zaldibian jaio zen 1951ko uztailaren 1ean. 1975etik 1982ra izan zen profesionala.

Taldeak: 1975-79: Kas, 1980: Teka, 1981: Colchon CR eta 1982: Hueso.

Garaipenak:

1975: - Espainiako txapeldun taldekako erlojuaren aurkakoan Gipuzkoarekin.

1976: - Nafarroako Sari Nagusia.

- Espainiako Mendi Txapelketa.

- Espainiako txapeldun taldekako erlojuaren aurkakoan Gipuzkoarekin.

- 3. postua Espainiako itzulian.

1977: - Espainiako itzuliko etapa bat.

- Valles Mineros itzulia eta etapa bat.

- Aragoiko itzulia eta bi etapa.

- Frantziako Tourreko etapa bat.

- 2. postua Espainiako Errepideko Txapelketan.

1978: - Valles Mineros itzulia eta bi etapa.

fenditu denean, erlojuaren aurka ere bai. Irabazten zaila zegoen, baina talde txikiak ailegatuz gero, baita helmugan ere. Hori bai, ondoena goraka.

Espainiako mendiko txapelketa irabazi nuenenean, Solluben bukatu zen. Gure garaian, Espainiako txapelketan, fondokoa eta mendikoa egiten ziren. Ge-

Orduan geure erara entrenatzen genuen. Kilometro mordo bat egin eta etxera ailegatu ezinik, leher egin da.

ro utzi egin zitzaion mendikoa egiteari. Mendikoa 1976an irabazi nuen eta fondokoa, 1977an bigarre-na egin nuen.

Taldekako erlojuaren aurkakoa erregioka, 100 kilometrokoa jartzen zuten gure garaian. Hiru lagun izaten ginen leku bakoitzetik. Astakeria zen.

Txirrindularitzarako zaletasunik ba al zen?

Bai, nik uste orain baino gehiago zegoela. Beste erabatekoa nahi baduzu, baina afizio handia. Hemen txirrindularitzako zaletasuna beti izan da. Estatu mailan, gehienekoa izango da hemen. Profesionalen edozein karrera egon eta jendea asko egoten da. Ez dakit garai batean adina egoten den orain. Baina hemendik kanpora edozein lekutara jotan bazara, Espainiako Vuelta ez baldin bada behintzat, ikusleen laurdenik ere ez da izaten.

Garai zailak txirrindularitzan

Doping-arekin nahikoa saltsa bada. Lehen ere horrelakorik ba al zen?

Lehen ere bai, baina ez horrenbeste. Garai batean anfetaminen probak egiten ziren. Gero, azken aldera, hasi ziren anabolizanteena egiten. Baina gaurko egunean gehiegizkoa da. Kirol guztietan denei horrela egiten badiete, bilatuko dituzte. Txirrindularitza pertsegietuegia dago.

Txirrindularientzako horrelako kontrolpean bizi beharra, gogorra izango da.

Ba, pentsatu. Denboraldi guztian, txirrindularia non-baitera joan behar baldin bada, UCI jakinaren gainean jarri beharra dauka, kontrolen bat egitera etortzen bazaizkio ere. Beti lokalizatu egon behar izaten dute txirrindulariek. Nik ez dakit nola den baina hala entzuten da bai. Izugarritzko inkisizioa dago.

Txirrindularitza itsusitu egiten du guzti horrek.

Zikindu, besterik ezer ez. Eta horrekin batera, babesleak bilatzeko gero eta zailtasun gehiago izaten da. Positiboa bilatuz gero, kitto, hurrengo urtean ez du talderik aterako. Lehen ere asko daude ba.

Euskaltel Euskadi taldeak lagundu al dio euskal txirrindularitzari?

Euskal Herriak badauka zorte ederra horrelako talde bat hemen edukita! Bestela, makina bat geldituko lirateke, profesionaletara pasatu gabe eta probatu gabe. Zeinek esan behar zuen Euskadi Fundazioa atera zen garaian, profesionaletan 15 urte egingo zituenik. Euskal Herriarentzako oso ona da.

Oraindik ibiltzen al zara txirrinduan?

Gutxi. Mendiko txirrindua-rekin baserrira joaten naiz, oilagorretarako txakurrak dauzkat eta han.

Rodilloan ere ibiltzen naiz, ordu erdi edo hiru ordu laurden. Denbora denean beti gustatzen zait zerbait egitea. Udazkenean, mendian ibiltzen naiz asko, txakurrarekin, oilagorretan. **Istripua ere izan zenuen txirrinduan zenbiltzala...**

Bai Alegin, duela 10 urte. Akabatu ez nintzenean! Bost egun koman egin nituen. Buruan hartu nuen kolpea.



“Eddy Merckx da historiako onena”

● **Nork irabaziko du aurtengo Tourra?**

Ez dakit, ireki samarra egongo da. Cunego agian? Ez dakit. Giroa egin zuen eta Tourra ondo prestatu duela esaten dute. Ez dakit.

● **Euskaldunik ikusiko al dugu aurrean?**

Nik esperantza badaukat. Gure taldetik, Haimar oso ondo dabil, Astarlozak bere neurria emango du eta Samuel Sanchez ikusi egin behar. Gurea ez doa ekipo txarra aurtan.

● **Historiako txirrindularirik onena?**

Eddy Merckx, dudarik gabe. Otsailean denboraldi hasieran eta urrian, bukaeran, berdin-berdin ibiltzen zen. Irabazi eta irabazi. Onak izan dira gehiago. Hinault ere oso ona zen. Eta Indurain zer esango dugu.

● **Txikitan edo gaztetan idolorik ba al zenuen?**

Txirrindularitza oso gustuko genuenez, dena segitzen genuen. Akordatzan naiz, Gabika, rubio-rubioa, Tourretik Ordiziako karrerara etortzen zela eta hari begira amorratuta egoten nintzen. Txomin ere bai.

● **Lasterketarik gustukoena?**

Tourra.

● **Txirrindu buelta bat emateko ibilbide bat?**

Guk, hemen, Alegiatik barrena egiteko daukagu ederra. Larraiztik barrena Amezketara jaitsita. Jende asko ibiltzen da buelta hori egiten.

● **Txirrindularitzaz gain, beste kirol bat:**

Denak, gustatu denak. Pelota adibidez, asko gustatzen zait, izugarri.

● **Zaletasun bat:**

Oilagorretara joatea. Onddo bila eta xixa bila ere gustura ibiltzen naiz.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

IBAI ONDO



Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak


PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5

BEASAIN

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea



**MUJIKA
LIBURUDENDA**

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Anabel Toral, lazkaotar saskibaloilaria



Anabel Toral. Lazkaotarra. 15 urte. 4. DBH bukatu berria du San Benito Ikastolan. Saskibaloia jokalaria. Donostiako Bera-Beran jokatzen du, junior mailan. Espiniako selekzioarekin ere aritzen da, kadete mailan. Jokoa antolatzen edo hegalean jokatzen du. Altuera ez du muga eta saskiratzen trebea da.

Saskibaloian aspalditik dabil Anabel Toral lazkaotarra. Txiki-txikitatik. Gaztea da oraindik baina dagoeneko ibilbide luzea egin dauka, saskibaloian. “Lehenengo, San Benito ikastolako taldean hasi nintzen. Eskolarteko txapeltan pare bat urtean jokatu nuen. Handik Ordiziar joan nintzen. Han teknifikazio talde bat zegoen eta urtebete egin nuen. Federatu egin ninduten kadeteetan. Bi urte pasa nituen Ordizian. Gipuzkoako selekzioarako deitu ninduten tarte horretan. Eta handik, Donostiako Bera-Bera taldearen deia jaso nuen”, zehaztu du Anabel Toralek.

Inguruko talderik indartsuenetarikoa da. “Beste tal-

de batetik ere deitu zidaten baina Bera-Berakoak hobekoak dira eta txapelketetara ere joateko aukera gehiago izaten da”.

Adinari dagokionean, kadetea baldin bada ere, Bera-Beran, junior taldearekin jokatzen du.

Ahalegin handia eskatzen dio lazkaotarrari Bera-Beran aritzea, baina berarentzat ez da traba. “Iazko denboraldian, astean behin joaten nintzen entrenatzera baina aurren, astean lautan joanez aritu naiz. Junior maila gogorragoa da eta entrenatzailea ere gogorragoa da eta entrenamendu guztietara joatea nahi izaten du”. Trenez egiten ditu Donostiarainoko bidea eta tre-

neko tarteak aprobetxatzen ditu ikastolako lanak egiteko. Ondo moldatu da, eta ikasturtea ere ondo atera du aurrera.

Juniorretan talde ona dauka Bera-Berak. Espainiatik hirugarrenak gelditu dira aurren. “Oso pozik gaude. Talde berria izan da eta ez genuen espero hain aurrean ibiltzea”.

Espainiako selekzioan

Bera-Beran jokatzeaz gain, kadete mailako Espainiako selekzioarekin aritzeko aukera ere izan du. “Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelketara joan ginen eta Aste Santuan, konzentrazio batera joateko deitu zidaten Espainiako selek-

zioetik”. Oso esperientzia ona bizi izan zuen. “Frantziako torneo batean aritu ginen, kadeteen mailan, Txekiar Errepublikan, Frantzia eta Hungariarekin batera. Irabazi egin genuen. Entrenamenduak gogorrak izaten ziren, oso gogorrak. Nahiko exigenteak ziren entrenatzaileak. Baina asko ikasten da. Jokalari onak ikusten dituzu gainera”, azpimarratu du lazkaotarrak.

Orain udan, Espainiako selekzioako konzentrazioa joango da berriz. “Hilabete bateko konzentrazioa da. Bartzelonan izango da eta 17 bat neska joango gara. Europako txapelketara joateko 12 laguneko taldea osatu nahi dute. Astero bat



Amaren dilistak

Beste kirol bat:

Futbola, tenisa, eskubaloia... orokorrean denak gustatzen zaizkit.

Zaletasun bat:

Irakurtzea, musika entzutea, zinea, messengerrean ibiltzea...

Musika talde bat:

Denetik entzuten dut. Talde ingelesak asko gustatzen zaizkit.

Liburu bat:

Harry Potter.

Oporretarako zein asmo daukazu?

Bartzelonara joango naiz Espainiako selekzioaren kontzentrazioa baina gero ea denbora izaten dudana Tarragonara joateko, lehengusuengana. Asko gustatzen zait.

Janari bat:

Amak prestatutako dilistak.

Ikastolan, zein gai duzu gustuko?

Ingelesa. Matematika ere bai.

Eta gutxienez?

Kimika.

'Handitan' zer izan nahi duzu?

Pentsatu, pentsatu dut baina ez daukat ezer garbi. Teknologia eta fisika eta kimikatik joango naiz eta gero agian ingeniartzaren bat egingo dut. Ez zait ezer gustatzen baina.

botako dute, Operación Triunfo bezala. Europako txapelketa Polonian da. Nire taldekide bat ere badago eta ea bitakoren bat hartzen gaituzten".

Altuera

Kadeteetan joko antolatzaile bezala jokatu izan du eta juniorretan, hegalean, 2 zenbakiarekin.

Altuera garrantzitsua izaten da saskibaloian. "Pixka bat falta zait. Bajuenetarikoa izaten naiz beti. Espainiako-

ra joan nintzenean, 1,97ko bat bazegoen, denak dira altuak. Altuera izanda erre-bote gehiago hartzen dituzte", aitortu du lazkaotarrak.

Dena den, txikixeagoa

izanagatik, saskiratzen tre-bea da Anabel. "Espainiakoan, bigarren puntu gehien sartu nituen. Pozik alde horretatik". Dena den, egunak izaten direla dio. "Tiroan

behintzat bai. Hirukoetan gaizki samar ibiltzen naiz normalean, baina kanporaketa honetan ez. Tiroa asko lantzen dugu Bera-Beran", gaineratu du

Etorkizunari begira saskibaloian jokatzeko jarraitzea gustatuko ote litzaiokeen galdetu digu. "Bai! Baina badakit horretan lan egiteko aukerarik ez dagoela, zerbait gehiago eduki beharra dago. Saskibaloian aritzea bai, baina bizitzea zailagoa da".

Espainiako selekzioko kade mailako taldearen kontzentrazioan izango da udan.

Goierritarra

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza Info

943 16 00 56

goierri@goierrikohitza.info

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundario Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

GO



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Zegama

Uztailak 6: Aizkorriko Lagunen Eguna

Uztailako lehenengo igandean, 6an hain zuzen ere, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko dute zegamarrek. Jarraian duzue prestatu duten egitaraua:

6:00etan: Mendi irteera (Aizkorri - Aratz - Sancti Spiritu), Zegamako plazatik Aizkorriaraino mendi ibilbidearen irteera Amezti Mendi Elkartekoen gidaritzapean.

7:30etan: Aratzgo elur-zulora mendi irteera. Aldaolaraino autobusa jarriko da Zegamako plazatik.

11:30etan: Meza Sancti Spiritun, Aita Iñaki Aranzadik ospatuko du.

12:00etan: Hamaiketako bertaratutako guztientzat Zegamako Udalak eskainia. Tobera Musika eskolako trikitilariak alaituko dute giroa.

13:00etan: Jaitsiera, Sancti Spiritutik Zegamara lagunartean. Salda beroa izango da bertaratutako guztientzat Udaletxeko arkupetan menditik datozenak herrira iritsitakoan.

Ordizia

Musika zinean zikloa

Ekainaren 26an hasita, ostegunetan, musika zinean zikloa ari dira bururtzen Herri Antzokian. Saio guztiak, gaueko 9etan izaten dira. Sarrera: 3 euro. Gelditzen diren bi emanaldiak ondorengoak dira.

Uztailak 10:

‘Anonimos’. (Amerikako Estatu Batuak. 2003). Zuzendaria: Larry Charles. Aktoreak: Jeff Bridges, Penelope Cruz eta Bob Dylan.

Uztailak 17:

‘Stones, shine a light’. Martin Scorsese zuzendariak Rolling Sones buruz egindako pelikula dokumentala.

Altzaga

Antton Ibargurenen omenezko ibilaldia

Uztailaren 13an, Antton Ibargurenen heriotzaren 19. urteurrena dela eta, bere omenez aurreko urteetan egin ohi den bezala, Belabietako Bira mendi ibilaldia egingo da. Zailtasunik ez duen bizpahiru orduko txangoa da. Lora sorta eskaintza egin ondoren goizeko 8etan bilduko dira, plazan. Ondoren, lagunarteko bazkaria egingo da.

Gabiria

Santa Marina jaiak Aztirin

Uztailaren 18an, Santa Marina egunean hasiko dituzte festak Gabiriako Aztiri auzoan. Jarraian duzue auzotarek prestatutako egitaraua:

Uztailak 18, ostirala:

10:45etan: Kanpai joaldia eta etxafuego jautiketa, jaien hasiera adierazteko.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Salda eta mokadu goxoak Aztiri-bat elkartean, ‘Katain eta Eguzkitza’ trikitilariak alaiturik.

12:30etan: Idi proba erakustaldia.

17:30etan: Gaztetxoentzat ume jolasak eta txokolate jatea.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak auzotarrentzat.

21:00etan: Auzo afaria Benta-Lehor jatetxean, Jesusen Jazz-Bandak alaiturik.

Uztailak 19, larunbata:

16:30etan: Helduen eta gazteen arteko futbol partida Gainzabal zelaian.

18:00etan: Aztiriko XIII. Patata tortila lehiaketa. Amaieran pintxo eta ardo banatzea.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak.

Arratsaldean eta gauean, bertsoak eta erromeria. Kupa taldea, eta Narbaiza eta Larrañaga arituko dira bertsoetan.

Uztailak 20, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Gabiriako txistulariekin.

11:00etan: Meza Nagusia eta Aztiriko IV. Mendi lasterketa.

12:30etan: Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa.

13:00etan: Mendi lasterketako sari banaketa.

Ondoren: Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariak eta Andoni Larrañaga eta Ion Ansorregi trikitilariak.

17:30etan: Trikitilariak eta bertsolariak.

18:30etan: Asto lasterketa eta herri kirol erakustaldiak: Esnaola eta Ugarteburu aizkolariak; Maider Manzisidor eta Lourdes Galarregi trontzan; eta Mieltxo Saralegi harri jasotzen.

19:00etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

Goizaldera arte: Trikitilariak, aurtengo festei amaiera emateko.

Itsasondo

Zinea

Ekainaren 27an hasi zen 2008 urteko zinema emanaldi garaia. Eguraldiak laguntzen badu goiko plazako frontoian emango dira, eguraldi txarra egingo balu, eskolako aterpean. Emanaldiak gaueko 10etan izango dira.

Uztailak 4: Charlie Chaplinen ‘Mutila’. 22:00etan.

Uztailak 11: John Irvinen ‘Alargunen gailurra’.

Uztailak 18: ‘Beckham izan nahi dut’.

Ataun

Organo Barrokoaren II. jaialdia

“San Martingo elizako organo barroko iberikoaz askoz hitz egin da. 1761ean, Lorenzo Arrazola oñatiarrak egin-dako artelan dotore eta miretsiak jarraitzaile asko ditu. Adituek diotenez altxor preziatua da eta ondorioz bere soinua entzuteak horrelako zirrara berezi bat sortzen du. Beraz isilik egon ezin litekeen tresna bat da San Martingo organoa”, dio Ataungo alkatea den Bittor Orozek. Hori horrela izanik, urtean zehar ogano oinarri bezala hartuta San Martingo elizan hainbat kontzertu antolatzen dira. Iaz urrats bat urrutirago eman nahian, Ataungo udalak antolatu zuen Musika Barrokoaren Nazioarteko I. Jaialdira organo jole eta musikari ospetsuak etorri ziren. “Entzuleen aldetik izan zuen arrakasta kontuan izanda, datozen urteetan jarraitzea erabaki genuen. Aurten, uztaileko hiru kontzertu antolatu ditugu: Capilla Peñaflorida taldea, Leon Berben alemaniarra eta azkenik Norberto Broggini eta Gustavo Gargiulo argentinarraren emanaldia”. Jarraian dituzue kontzertuen xehetasunak.

Uztailak 5:

Capilla Peñaflorida organoan Loreto Fernández Imaz 20:00etan.

Uztailak 12:

León Berben organo jolea: Ataungo elizan Cabanillas maisuaren obreakin grabatutako diskoa aurkeztuko du. 20:00etan.

Uztailak 19:

Norberto Broggini organo jolea, Gustavo G. Gargiulo cornettoa eta tronpeta naturala. 20:00etan.

Lazkao

Uztaileko ekintzak

Uztailak 3, osteguna:

22:00etan: Txalo taldearen ‘Grönholm metodoa’ antzezlan, Euskadi plazan.

Uztailak 7, astelehena:

19:00etan: ‘Euskaraz Bail’ erakusketaren aurkezpen ekitaldia. Erakusketa uztailearen 7tik 11ra egongo da irekita, 17:00etik 21:00etara; eta ostiralean: 15:00etatik 18:00etara.

Uztailak 8, asteartea:

22:00etan: J. Ramon Agirre ‘Marron’ mendizalearen ‘Aire-airean’ ikusentzunezkoa, Euskadi plaza.

Uztailak 10, osteguna:

18:30ean: ‘Zazpi Astoren gainean’ tabernaz taberna kantari: Iñaki Apalategi, Agin Rezola, Unai Larreategi eta Ane Larreategi. Lazkaoko tabernetan hasi eta Maizpideko jangelan bukatuko da.

Uztailak 15, asteartea:

22:00etan: Txan magoa, Euskadi plazan.

Uztailak 17, osteguna:

22:00etan: Txuma Murugarrenen kantaldia, Euskadi plazan.

Uztailak 22, asteartea:

22:00etan: Goierriko bertsolariak: Iñaki Apalategi, Iban Urdangarin, Ainhoa Mujika, Joseba Agirrezabala, Endika Igarzabal, Julen Agirre. Gai jartzen: Jokin Murua. Euskadi plazan.

Uztailak 23, asteazkena:

22:00etan: Drindots musika-taldea, Euskadi plazan.



Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11



AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behe
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

LANA

eskaerak

Beasaingo akademia batek frantsesa eta ingelera emateko pertsonak behar ditu. Bidali curriculumua 61 posta kutxara. 20240 Ordizia edo

www.ikaskide.net edo deitu bestela 943160120.

Beasaingo akademia batek fisika eta marrazketa emateko pertsona behar du. Bidali curriculumua 61 posta kutxara. 20240 Ordizia edo

www.ikaskide.net edo deitu bestela 943160120.

Beasaingo akademia batek kontabilitatea, estadistika eta finantza-matematika emateko pertsonak behar ditu. Bidali curriculumua 61 posta kutxara. 20240 Ordizia edo

www.ikaskide.net edo deitu bestela 943160120.

Zerbitzaria behar da larunbat gauetarako. Urte osoa. Abuztua jai. 618930021.

Begiraleak behar dira uztai-lean, goizetarako. 696650971.

Lazkaoko San Benito Ikastolako Hizkuntza Eskolak ingeleseko irakaslea behar du 2008-2009 ikasturterako. Bidali CV: vhigareda@sanbenito.ikastola.net

Fregaderan lanean aritzeko pertsona bat behar da larunbat gauetarako. 615700408.

Zerbitzari euskalduna behar da tabernarako. 678211206.

Beasainen zerbitzaria behar da, astelehenetik ostiralera, eguerdietan. 943889252.

eskaintzak

Matematikako ikasleak, klaseak eskaintzen ditu DBH eta Batxilergoentzat, euren etxetan. 635203958.

Neska gazteak, umeak edo helduak zaintzen, edo garbitzen lan egingo luke. 606722876.

Psikologian lizentziatuak, zutailaren lehen hamabostaldian, umea, elbarri nahiz helduak zainduz, ingelese irakatsiz, nahiz ostalaritzan lan egingo nuke. 24 orduak prest. 665702296.

Informatikako klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. Office, korreo elektronikoa, photoshop, argazkiekin bideoak egin... 679556586.

Hemendik aurrera,

iragarki labur guztiak

www.goierrikohitza.iragarkilaburrak.com

helbidean eta
ostiralero zure etxean

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Baserrria hartuko genduke errentan, Goierri aldean. 635202146.

salgai

Beasain. 2 logelako pisua salgai. Berritua. 943187307.

Beasain. Nafarroa etorbidean, pisua salgai. 2 logela. Sukalde/egongela eta gas naturaleko berogailua. 636733159.

Ordizia. Egokitutako 50 m²ko etxebizitza salgai. Erdigunean. Aukera ona. 180.000 euro.

BESTELAKOAK

salgai

Eskulan tailerrera altzariak salgai: mahaia, aulkiak, aulki txikiak eta astoak. 676299257. Erantzungailuan utzi mezua.

ANIMALIAK

opari

Artzain txakur kumeak oparitzen dira. 652769268.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDA 2008

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak
Errekuperazioak eta ikasketa teknikak

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA, MEKANOGRFIA

INGELERA IKASTARO TRINKOAK

BERRIA! FRANTSESA

Joan Iturralde, 5 solairuartera - BEASAIN - www.ikaskide.net
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

MATRIKULA 2008-2009 IREKITA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

nazaretzentroa

N4

MATRIKULA IREKIA

DATAK **BATXILERGOA** - Ekainak 30etik Uztailaren 4rarte

LANBIDE HEZIKETA - IZEN EMATEA - Ekainak 2tik 13ra

Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Gai Mailako Zikloak	Ziklo Ertainak
■ Administrazioa eta Finantzak	■ Administrazio-Kudeaketa
■ Informatika Sistemen Administrazioa	■ Merkataritza
■ Informatika Aplikazioen Garapena	■ Sistema Informatikoen Ustiaper
■ Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	
■ Nazioarteko Merkataritza	
■ Idazkaritza	

Masterrak

- Aplikazio Informatikoen Garapenean Masterra

Ikasgaiak euskaraz, gaztelaraz eta ingeleraz ematen dira

Aldakonea, 36 · B° Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

UKAN RECORDS

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hartu doan
pixkabatesmucho.com
webgunetik.



Itsasoko 'autoritateak' 1925. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Jazinto Larrañaga (Segurako sastrea, txanboliteroa), Jazinto Larrañagaren laguntzuna, Domingo Oria (Eztalagoiti), ezezaguna, Joxe Lasa (Mandubiko ezkerria), Mandubizaharreko Iturbe, apaiza eta Santiago Arzelus (ostatukoa, aguazila).

Behoko ilaran: Joxe Frantzisko Usabiaga (Oria), Rufino Agirre (sekretarioa), Joxe Inazio Irastorza (Itsasogoenekoa, alkatea zidorra –alkate makila– eskuan duela) eta Anakleto Arzelus (Goene).

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVIAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com

Olagi

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Sagardotegia
Jatetxea

Karta

Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Dolpo – Nepal



Zatoz

Himalaiako herrialde
politenetako bat
ezagutzera

Mendi ikusgarriak:
Daulaghiri
Annapurna

Dolpoko bizimodu
zail eta gogor
hori sentituz

Abuztuaren 3tik 25era

Joxe Ramon Agirre – Marron
Tfnoa. 615 781 287



reflexione



E W M E

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA *Salvatore Ferragamo* EXTÈ ROMEO GIGLI



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

bertan duzu



JATETXEAK

ALTAMIRA - Ordizia	685 79 47 55
ARTZAIENEA - Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA - Gabiria	943 73 36 22
BARTZELONA - Legorreta	943 80 62 06
CASTILLO - Olaberria	943 88 19 58
DOLAREA - Beasain	943 88 88 29
GUREGAS - Beasain	943 80 54 80
KUKO - Ormaiztegui	943 88 28 93
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
LOINAZ - Beasain	943 88 20 07
MANDIOA - Zeraín	943 80 17 05
MANDUBIA - Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ - Ordizia	943 88 06 41
MUJKA - Idiazabal	943 18 73 19
MUJKA - Mutioa (Liemia)	943 80 16 99
OSTATU - Zeraín	943 80 17 99
OSTATU - Zegama	943 80 10 51
OSTATU - Mutioa	943 80 11 66
OTENE - Gaintza	943 88 98 48
OTZURTEKO BENTA - Zegama	943 80 12 93
TXINDOKI - Ordizia	943 88 40 49
URBIETA - Ataun	943 18 00 19
URKIOLA - Beasain	943 08 61 31
ZEZILIONEA - Olaberria	943 88 58 29
ZEPAI - Idiazabal	943 18 71 98

JULKI GOZOTEGIA - Beasain	943 88 82 37
UNANUE GOZOTEGIA - Ordizia	943 88 15 51

SAGARDOTEGIAK

MARISQUERIA KORTA - Gabiria	943 88 71 86
OTATZA - Zeraín	943 80 17 57
TXIMISTA - Ordizia	943 88 11 28

PENTSIOAK

ITXUNE ** - Ormaiztegui	639 23 88 89
ZEGAMA ** - Zegama	943 80 10 51
ZEZILIONEA ** - Olaberria	943 88 58 29

NEKAZALTURISMOAK

ALDARRETA - Ataun	943 18 03 66
ARRIETA - HAUNDI - Zegama	943 80 18 90
BARTZELONA - Legorreta	943 80 62 06
BORDA - Olaberria	943 16 06 81
IRIZAR AZPIKOA - Zaldibia	943 88 77 18
LAZKAO ETXE - Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE - Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE - Zeraín	680 17 12 91
ONDARRE - Segura	943 80 16 84
PAGORRIAGA - Beasain	943 58 20 71
TELLERINE - Zeraín	943 58 20 31

HOTELAK

CASTILLO *** - Olaberria	943 88 19 58
IGARTZA * - Beasain	943 08 52 40
GUREGAS ** - Beasain	943 80 54 80

LANDETXEAK

LIERNIGARAKOA - Mutioa (Liemia)	943 80 16 99
ORUE - Mutioa	943 80 19 00

ATERPETXEAK

SEGURA	943 80 10 10
ZERAIN	943 80 15 05

KOMERTZIOA

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia	
-----------------------------	--

KIROLAK

MAJORI POLIKIROLDEGIA - Ordizia	943 88 93 33
OIANGUREN - Ordizia	943 88 66 20

ZER. TURISTIKOAK

ALARPE - Zaldizko Ibilbideak	943 88 05 76
ALDABE - Gida Zerbitzuak	943 80 15 05
ARAZI - Gida Zerbitzuak	943 83 36 41



Kalitate turistikoarekin konpromisoa



goierri
bertan duzu

GOIERRI PARKE NATURALA ETA KUTURALA

- GAZTAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA IDIAZABAL
- ELIKADURA ETA GASTRONOMIAAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- GOIERRIKO INTERPRETAZIO ZENTRUA-DELIKATUZ ORDIZIA
- ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
- ERTAROKO INTERPRETAZIO ZENTRUA SEGURA
- EGURRAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ZEGAMA
- PARKE KUTURALA ZERAIN
- BURDINAREN MENDIA - AIZPEAKO MEATEGIA ZERAIN
- URAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA ZALDIBIA



EUSKADI
atsegin handia
con mucho gusto



www.goierriturismo.com

ALTZAGA ARAMA ATAUN BEASAIN GABIRIA GAINZA IDIAZABAL ITSASONDO LAZKAO LEGORRETA MUTIOA OLABERRIA ORDIZIA ORMAIZTEGI SEGURA ZALDIBIA ZEGAMA ZERAIN